

## URTZI URRUTIKOETXEA GAZTEAREN OLERKI LIBURUA AURKEZTEAN

*Bilbon, egoitzan, 1997-XI-19*

*Jose Antonio Arana Martija*

Euskaltzaindiaren izenean hasieran esan behar nituen hitzak akaburako geratu dira, nire erruz, aurkezpen hau ordu geroago izango zelakoan nengoelako. Susa argitaletxearen zuzendaria den Gorka Arresek eta *Borroka galduetatik gatoz* olerki liburuaren egileak esandakoen ondoren zerbait adierazi nahi nizueke.

Lehendabizi, Euskaltzaindiak atseginez ematen duela baimena halako eginkizunetarako, bere zereginak azaltzen dituen Araudian baitago euskal literatura ikertzea eta suspertzea.

Etorri zareten kazetariari eskerrik asko. Julen Guerrerok, beronen antza eta adina daukan 20 urteko Urrutikoetxea olerkariak baino oihartzun askoz ere handiagoa dauka prentsan. Eta zuoi, kazetariari dagokizue gauzak aldatzeko ahalegina. Badakit gaurko eginkizun honetaz zutabe erditxo bat agertuko dela prentsa idatzian, eta hitz laburrak beste komunikabideetan. Gure kulturaren eta hizkuntzaren mesedetan gehiago beharko genukeela argi dago, gure iritzian, behintzat. Gero eta motelago gabiltzan beldur naiz.

Susa argitaletxeari eskerrak, azkenik. Euskal literaturari ematen dizkion harrera onak eta bultzadak euskaldunon eskerrak merezi ditu. Hil honen 13an, duela sei egun, beste liburu bat aurkeztu zuen Bizkaiko Arratzun, Juan Bautista Bilbao Elgezabal "Batxi"rena, hain zuzen: *Hau mundu arrano hau*. Gezurra dirudi sei egunen barruan bi euskal liburu kaleratzeko gai izatea: euskal testuak behar dira, jakina, baina irakurleak ere beharrezkoak dira enpresa pribatu bat halako ausardietan sartzeko. Gure literaturarentzat seinale ona ote da ildo honetatik ibiltzea? Eskerrak ba, Gorka Arrese.

Hasieran ezin esango nuena gehitzeko aukera dut orain. Galdera bat izan da entzuleen aldetik bizkaierari buruzkoa. Urtzi Urrutikoetxeak erantzun du, eta ondo, lexikoaren aldetik badugula zeresanik bizkaitarrok. Nik erantsiko nioke halako hau: Azkuek proposatu zuen *Gipuzkera osotua*, euskara baturako irtenbideak, ez zuen aurrera pausurik eman, gerrak eten bat egin zuelako eta idazle orok ez zeudelako ados. Beste bide bat hartu du geroztik Euskaltzaindiak, euskalki guztiak direlako, eta izan behar dutelako, iturri berdinak. Baina bizkaierak badu zer esanik, lexikotik aparte, morfologian esate baterako. Eta gehiago esango nuke: La-

combe euskaltzainak eta Hugo Schuchardt, Grazeko hizkuntzalari jakintsuak, Bonaparteren teoriak gaindituz, euskarak bi mota dituela esaten zuten: bizkaiera eta beste euskalki guztiak. Teoria bat da, baina ez bizkaitar batek asmatutakoa, lapurtar eta aleman batek aitotutakoa baizik. Bilboko idazle gaztea dugu gaur hemen agertzen dena. Har beza eta dezagun bizkaitarrok teoria horrek ematen digun ondorena eta ondarearen defentsa.

Eta besterik ez. Denoi eskerrak.